

Intimitate publikoak

Oihane Larretxea
de la Granja

Bai, nik ere egin dut. Alegia, Whatsappeko kontaktuen zerrendan sartu eta argazkiak kuxkuxeatu. Nork eguneratu du? Nork segitzen du lozorroan irudi igualarekin? Bakoitzak bere bizitzaz erakusten duen apur horretan miatu. Ez erratu, apurra izanagatik ez baita hutsala.

Nolakoak dira aukeratzen ditugun irudiak? Zer da kontatu nahi duguna, zer ez kontatzeko?

Zuk ere besteen intimitate publikoan arakatzen duzula asumitzen dut. (Zaila da hau ukatzea, jakinda munduan aplikazio deskargatuenak direla Tik Tok eta Instagram). Beraz, badakizu zertaz ari

naizen. Eta ziur asko, nik ikusten du-dan zerrenda ez da zuk ikusten duzunarengandik hain ezberdina.

Kontaktuen artean denetarik dago, baina patroï batzuk errepikatzen dira. Batzuek paisaiak jartzen dituzte, sustantzia gehiegi gabeko hautu batean. Beste batzuek, nostalgikoenak, umetan nolakoak ziren erakusten dute. Eta badago oraindik argazkia beharrean aplikazioak berak *por defecto* dakarren irudi tristea mantentzen duenik. A zer bajoia.

Badira ere, eta ez gutxi, seme-alaben irudiak jartzen tematzen direnak. Nerabe zaretenean zuen irudiak partekatzeari kontrolatzeko eskatuko zaizue,

baina lasai, bitartean amak edo aitak zabalduko dituzte-eta zuen aurpegi-txoak. Ea bada, zeinena da profila, gurasoarena edo haurrarena? Duzun gauzarik baliotsuena direlako jartzen dituzu, baina ez al da hain justu horregatik babestu behar direla?

Eta bueno, zer esan biloben argazkiak jartzen dituzten aitona-amona horietaz? Arrrg!

Baina joerak joera, ikusten dut gehiengoak nork bere burua erakustearen hautua egiten dugula, banitatea ere elikatu behar delako. Hau ere ez dizue ukatuko. Ukatu ezin den bezala bikotearekin agertzen direnek...

puntu eta aparte bat merezi dutela. •

Normalizazioa gurpil gainean

Koldo Sagasti

Atzo Utrechtetik abiatu zen “Vuelta a España” lasterketa eta datorren astean hiru etapa egingo ditu Euskal Herriko errepideetan. Zergatik duen lehiaketaren aurtengo edizioak abiapuntua Herbehereetan ez dakit, erabaki politikoren bat izango da tarteko, seguruenik. Susmatzen dudana da ibilbidearen zati bat euskal lurretan kokatzeko hautuan, hor bai, hor badela asmo politiko argia. Kirola, esan gabe doa, konnotazio politikoz blaituta dago, areago ikuskizun mediatikoa denean, eta mezu politikoak igortzeko plataforma unibertsala dela erakutsi du historian zehar.

Ondotxo dakite hori Hasbara ministroan (Propaganda), Israelgo administrazioak duela urte batzuk estatu hebrearraren nazioarteko irudi lagunkoia

sustatzeko sortutako ministerio berezian. Propaganda departamentu horren zereginetako bat nazioarteko foroetan Israelgo ordezkarien parte-hartzea bultzatu eta diruz laguntzea da. Haren eskutik dator, duda barik, aurtengo “Vuelta a España”-k dakarren berrikuntzetako bat: Israel Cycling Academy taldearen parte-hartzea.

Israelgo txirrindulari taldea ez da ohiko talde bat eta apartheid erregimenarekin dituen loturak nabarmenak dira. Halaxe aitortu du adierazpen publikoetan Sylvan Adamsek, taldeko jabeak: «Gure kirolariek badakite Israelgo taldean dadelat eta euren herrialdeko enbaxadoreak ere badirela». Adams enpresari kanadar milioiduna da, kontzentrazio esparru batetik ateratakoan hirigintza inperio bat eraiki zuen judu baten ondo-

rengoa. 2017an lortu zuen hiru urte lehenago Ran Margalio txirrindulari profesionalak eta Ron Baron zaleak sortutako taldearen jabetza. Izan ere, hain da ezohikoa txirrindularitza Israelen, non 2014an eratu zen lehenengo talde profesionala, Jerusalem Mendebaldeko Nes Harim kolonian. Taldea kanpotik kontratatutako kirolariz osatu dute, gehienbat, eta bost baino ez dira israeldarrak; besteak beste, Guy Niv, *Sniper* ezizenez ezagutzen dutena bere militar garaietan frantkotiratzaile lanetan aritu zelako.

Gauza nabarmena da talde hau ezohiko samarra dela, Israelen txirrinduzale-tasuna bezain ezohikoa, eta nazioarteko erakusleihoan normaltasunez agertzeak helburu propagandistiko argia duela: ordezkatzeko duen erregimena ere normalizatzea. •